

Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Internet, espazioan ere bai

COLORADOKO UNIBERTSITATEKO (AEB) ikerlariak, NASArekin batera, komunikaziorako teknologia berri baten bila ari dira Nazioarteko Espazio Estazioan. Teknologia horren bidez, Lurreko Internet espaziora eta eguzki-sistema osora hedatu nahi dute.

DTN deitu diote teknologia berriari, eta haren bidez, NASAk eta bestelako nazioarteko espazio-agentziek Lurretik kanpo dauden ibilgailuekin Internet bidezko komunikazioa izango dute.

Egungo Interneteko teknologia ez da aproposa espazioan aritzeko, planeten arteko distantziak, ibilgailuen orbitak eta komunikazio-seinaleak ez baitira egoki ezkontzen teknologia horrekin. Espazioko baldintzek behartzen dute Lurraren eta espazio-ontzien arteko komunikazioa puntutik puntura egitera, walkie-talkiekin egiten den antzera, eta horrek lotura bakoitza eskuz egitera behartzen du. Abian dagoen ikerketarekin oztopo horiek gaingitzeko modua lortu nahi dute.



Animalia zaharrenak ez zirela ozeanoan bizi esan dute

BESTELAKO BIZIDUNIK sortu aurretik, Lurrean zelula bakarreko izakiak bizi izan ziren ia 3.000 milioi urtetan. Gero, izaki plurizelularrak sortu zirenean, espezieen dibertsifikazioa oso azkarra izan zen. Baina Kaliforniako Unibertsitateko ikerlari talde baten arabera, lehen izaki plurizelularrak ez ziren itsasoan bizi izan, laku batean baizik.

Aurkikuntza hau Txinako hondakin fosilen azterketetatik ondorioztatu da eta asko harritu ditu ikerlariak, lakuetako giroa askoz ere ezegonkorragoa baita itsasokoa baino. Egia esan, lakuetan gertatzen ziren ekosistema-aldaketek bizirako baldintzak interesgarriagoak izango zirela iradokitzen dute. Dena den, beste aurkikuntza batek hankaz gora jar dezake hipotesi hau, topatutako fosila itsasoan bizi izandako izaki batena bada.

Mende honen amaieran, itsasoa metro bat gorago

Gero eta azterketa gehiago egiten ari dira mundu osoko ikerlariak lurraren berokuntza dela-eta, itsas mailaren hazkundera etorkizun hurbilean zenbatekoa izango den jakin nahian. Berriki esan dutenez, leku batzuetan ia metro bateko igoera edukiko du itsas mailak mende honen amaierarako. <http://ttiki.com/5880> (Gaztelaniaz)

Ozono zuloaren sortzaileak

Urtetan, klorofluoro hidrokarburuak izan direla ozono-zuloaren sortzaile nagusiak adierazi izan da. Orain nekazaritza lanetan sortutako nitrogeno protoxidoari egozten zaio errua batez ere. <http://ttiki.com/5881> (Frantsesez)

Historiaurreko gizakiek ekosistemak aldatzen zituzten

Askotan idilikoki irudikatu digute historiaurreko gizakien eta naturaren arteko harremana, baina *Science* aldizkarian, abuztuaren amaieran argitaratutako emandako artikuluan, datu harriarriak eman dituzte horri buruz. <http://ttiki.com/5882> (Frantsesez)



Zientziari buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua zientzia@argia.com helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16